

## AUTOEBALUAZIO ARIKETAK

### 3.GAIA

Irakasle taldea  
ELORDI GÜENAGA, UDANE  
HUITZI EGILEOR, JOSEBA XABIER  
IZAGIRRE OTAEGI, ANDREA  
UGARTEMENDIA YEROBI, MAIDER  
URANGA ITURRIOZ, MARÍA JOSÉ  
ZUBELDIA ETXEBERRIA, JOSUNE

1. Nola diseinatu zen UPV/EHUko Erizaintzako Gradua?
  - a) Berrikuntza proiektu baten esparruan.
  - b) UPV/EHUko erizaintzako diplomatura ematen zuten hiru Ikastegietako Titulu Batzordeek elkarlanean.
  - c) Hezkuntzan aditua eta Pedagogian doktorea den pertsona baten orientabideari jarraituz.
  - d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
  
2. Erizaintzako Graduako Tituluaren irakasgaiei dagokienez, adierazi zein EZ den zuzena:
  - a) Irakasgaiak izan ziren titulua diseinatzeko abiapuntua.
  - b) Irakasgaiei zentzua ematen die irakasgai bakoitzean garatuko diren gaitasunek.
  - c) Practicumeko irakasgaiak nahitaezko irakasgaiak dira.
  - d) Practicumeko irakasgaiak titularen ia % 40 osatzen dute.
  
3. Literaturan jasotzen denez, zein da gaitasunak garatzeko testuinguru egokiena?
  - a) Unibertsitateko eskola magistraletako ikasgela.
  - b) Unibertsitateko mintegietako ikasgela.
  - c) Unibertsitateko simulazio ikasgela.
  - d) Practicuma.
  
4. Gaitasunei eta ikaskuntzaren emaitzei dagokienez:
  - a) Gaitasunen definizioa nahikoa izaten da ikasleek gaitasunak garatu dituztela egiaztatzeko.
  - b) Ikaskuntzaren emaitzek gaitasunen garapen maila deskribatzen dute.
  - c) Ikaskuntzaren emaitzak abstraktuak eta neurtzeko zailak izaten dira.
  - d) Aurreko guztiak okerrak dira.
  
5. Practicum osoa egiteko "giltza irakasgaiak" daude; zer esan nahi du horrek?
  - a) Ikasleek practicuma egin behar dutela "giltza irakasgaietan" matrikulatu ahal izateko.
  - b) Ikasleek "giltza irakasgaietan" matrikulatuta egon behar dutela practicuma egin ahal izateko.
  - c) Ikasleek "giltza irakasgaiak" gaindituta izan behar dituztela practicuma egin ahal izateko.
  - d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

## ERANTZUNAK

| Galdera zenbakia | Erantzun zuzena |
|------------------|-----------------|
| 1                | d               |
| 2                | a               |
| 3                | d               |
| 4                | b               |
| 5                | c               |